

Orgasmus misterioa

Asteazkena, 2011-04-06

Duela hilabete batzuk *Orgasmus* antologiaren berri eman genizuen. Geroztik ez dira kritika asko kaleratu Txalapartak Literotura sailean argitaraturiko liburuaz, baina komentarioak ugariak izan dira. Azkena, Iraitz Urkulok El Correon argitaratu zuen '*Best seller' fenomenoa euskal literatura erotikoan* artikulua. Liburuaren idazleetako batek, *Iratxe Esnaolak* eta *Josune Muñoz* literatur kritikari feministak gogoeta bana bidali digute Urkulok bere iruzkinean esaten dituenaz.



Iratxe Esnaolaren erantzuna Iraitz Urkuloren artikuluari:

Iraitz Urkuloren testua irakurri ostean, gauzak asmatzen ibili den sentipenarekin geratzen naiz: "Estrategia literaturaz kanpoko arrazoiengatik eta idazkera erraz baten alde egiteagatik ezagutzera eman diren idazle multzo honen inguruan piztu den eztabaida kritikoari bizirik eustean datza". Nola ulertu bere adierazpenak: literaturaz aparteko beste arrazoiengatik egin naizela ezagun (!), idazketa erraz baten alde egin dudala (!). Edo dibertigarriago: "Emakume idazle talde honek 'mass media'n duen presentzia izugarria izanik(...)". Ze mass media! Eta hau dena, irakurlea ohartuko zen, gutariko bakoitzaren indibidualtasuna ezabatu eta TALDE batean hertsituz, ezaugarri berberen jabe eginez. Esan gabe doa Taldea emakumeena dela. Ulertarazi nahi digu emakume gazteok argialetxeek eta medioek egindako koktelagatik garelako idazle eta ezagun?

Nire merituz idatzi eta lortu nuen *Galerna* liburuaren argitalpena. Izatez, promozio bideei ahal nuenetan izkin eginez. Baina Iraitzen hitzak irakurri eta editoreek begia nigan jartzeko zorte miragarria izan nuela iruditzen zait: "Izan ere, emakume idazleen aldeko apustua indartsua egiten ari dira euskal argialetxe nagusiak". Ez, bada. Mendeen ostean emakumeek idazteko eta publikoan agertzeko aukera dugu eta horren ondorio logikoa da argialetxeen eskaintzetan emakume izenak ikustea. Jarraian gehitzen du: "Pentsa bestela nortzuk izan diren azken urteotan euskal literaturan arreta gehien jaso duten liburuen egileak; horietako gehienak, bada, liburuan parte hartu dute: Garazi Goia, Irati Jimenez, Katixa Agirre, Iratxe Esnaola, Irati Elorrieta?". Arreta gehien? Beharbada, gizonentzat normaltzat dituen liburu aurkezpen eta segidako elkarriketak asko iruditzen zaizkio guretzat, izan ere, norma, neutroa dena, gizonaren aurkezpena delako eta horrek ez duelako pisurik, berez delako. Ondorioz: zenbat neska! Gehiago! Hainbeste!

Jarri atentzioa: Irati Elorrieta, Iratxe Esnaola, Judit Zuloaga, Irati Goikoetxea, Garazi Goia, Garazi Arrula, Tania Hearst, Petra Schelm, Katixa Agirre, Irantzuz Ezkerro, Irati Jimenez, den -denok idazketa erraz baten alde egin dugu? Denak

mass medietan presentzia izugarria izan dugu? Denak idazketatik apartekoengatik ezagun egin gara?

Ez, bada. Hemengo komuntasun bakarra denok emakume izateagatik MULTZODUN garela da. Ni ez ninduten sekula Orgasmus belaunaldian sartu, ez eta idazkera errazaren taldean ere. Susmoa izan dut beti, Orgasmus-en parte hartu izan ez banu, halaxe jarraituko nukeela. Jakinaren gainean nengoen parte hartzerako. Erasmus izendapen lerdoa gorabehera, emakumeei egiten zitzairen etiketa jartzearen kontra agertzea izan zen nire kolaborazioaren asmoa. Eta artikulu honi esker konprobatu dut ez zegoela beren ondoan jartzea besterik, adjektibo berak jasotzen hasteko.

Bestalde, nik uste nuen mendeetan emakumeen sexualitatea itzalpean mantendu zutela eta neskon lumek literotura egitea poztekoa zela. Eta horrekin batera, liburuak arrakasta lortzea ez zela hainbesteko *Misterioa*. Euskal literoturan "hutsune kezkarriak" ikusten ditu Iraitzek. Bertakoek idatzitakoetan "saiakera xumeak" eta emakumeon ekarpen honetan marketing-era bideratutako plana eta idazkera erraza. Tamalez, ez dio ezer guk idatzitakoaz. Niretzat emakumeak desiratuak izatek desiratzailerantz pasatzen direla da albistea. Masturbatzen garela idaztea da albistea. Emakumeok emakumeak berotzen ditugula aireratzea da albistea.

Liburua argitaratu zenetik ez da berari buruzko artikulurik idatzi ia. Espikatzen digu salduen artean dagoela liburua, baina kritikak ezer ez dionez, arrakastaren argudioak ez direla literarioak izanen! Zerbaitean arrazoi du, behintzat. Ia inork ez dioela ezer. Eta pentsatzen jarrita, isiltasuna arma zanpatzailea da. Zerbaitean existentzia molestagarri denean, edo zerbaitean garrantzia estali nahi denean, edo begiratu nahi ez zaionean, ez da hartaz hitz egiten. Ikusezin bihurtzeko arriskuraino. Bihurtzeraino.

Ez dut uste denok intentzio berak genituenik *Orgasmus*-en parte hartzean. Nire asmoa historian emakume sortzaileek jasan behar izan dituzten behaztopak gogoratzea zen, nire umore absurdo kankailuaz. Tamalez, gaur ere, **Idazletzat** onartuak izateko Iraitzek emakumeoi eskatutako pasea, gizonezkoena baino garestiagoa delakoan nago.

Josune Muñozen erantzuna Iraitz Urkuloren artikuluari:

Martxoaren 19an, El Correo egunkariaren *Territorios* kultura gehigarrian Iraitz Urkulok sinatutako "*Best seller* fenomeno euskal literatura erotikoa" artikulua irakurri genuen. Agudo hasieran, mantso ostean eta oso geldiro bukaeran Iraitzek artikuluan adierazi nahi izan zuena ondo ulertu genuela ziurtatzeko.

"*Orgasmus*: hamaika emakume idazleren eskutik sortutako liburu erotikoak arrakasta ziurtatuta du, oso gutxitan landu baita genero hau" azpigitulua dakar artikulua. Dakizuenek, gu oso skolastikoak gara eta dudak zein galderak izaten dira gure metodo erabilienak. Duda bi azpigituluan: gutxitan landu da erotismoa euskal literaturan? Eta horrek arrakasta ziurtatzen du? Irakurtzen jarraitu genuen eta jakin genuen Iraitzek ere dudak eta galderak maite dituela. Berea: "Nola azaldu behar da orain (Durangoko azoka eta hiru hilabete geroago) *Orgasmus* Euskal liburu salduen artean topatzea?" Hona hemen ***Orgasmus misterioa***, Iraitz argitzen saiatuko dena.

Gure literaturan literatura erotikoa dugun hutsune kezkarriaz mintzo da, eta arrazoiak kausitzen ahalegintzen da. *Orgasmus* liburuan kokaturik, kritikak ez diola arretarik eskeini aipatzen du eta galdetzen du: "Argudioak literarioak ezbadira, nola azaldu daiteke, orduan, arrakasta komertziala? Erantzuna merkatu garaikideko dinamikan bilatu behar da".

Guk ez dugu uste hutsune kezkarrik dagoenik. Azken urte hauetan ez, behintzat, inoiz ez baita egon hainbeste aukera erotikorik. Literatura erotikoko lehiaketa dugu, poema bilduma, errelatoak, autobiografia erotikoa bat... Gehiago itzuli behar direla? Agian; gaia bera gehiago agertu beharko litzatekeela eleberrietan? Baliteke; baina egoera ez da, inolaz ere, kezkarria, euskal literatura-sistemak dituen ezaugarri eta neurrietarako. Eta gai edo genero bat gutxitan landu izanak ez du derrigor arrakastarik bermatzen. Arrakasta ez da hain matematikoa.

Egia da, bestalde, kritikak ez diola arretarik eskeini liburuari, baina horrek ez du esan nahi balio literarioa ez duenik: kritikoen miopia, aurrejuzku asko edota kritika-tresnen falta izan litezke gabezia horren beste motibo batzuk.

Hala ere, eta zorionez, kritikok ez gara balio literarioei buruz hitz egin dekegun bakarrak, irakurleak ere hor daude. Agian, erantzuna ez dago merkatu-dinamikan bakarrik; agian irakurleek gustura irakurri dute eta beste irakurle batzuei gomendatu diete. Ahoz ahoko informazioa eta gomendioak daude askotan best-sellerren arraskastaren atzean.

Artikuluaren azken zatian, *Emakumea* izenekoan, Iraitzek dio: "Emakume idazleen aldeko apustu indartsua egiten ari dira euskal argitaletxe nagusiak. (Emakumeak) izan dira azken urteotan euskal literaturan arreta gehien jaso duten liburuen egileak". Iraitzek ba al daki oraindik zein den euskal literaturan emakume egileen (narratzaile, poeta, itzultzaile, irudigile, saiakeragile...) portzentaia? Ba, %32 baino ez, eta horietan gutxiengoa dira narratzaileak eta poetak. Aurtengo zenbakiak dira, eta beraz, behar-beharrezkoa da emakumeen aldeko apustu indartsu hori, orain oso gutxi arte egiten ez zena. Normalizazio bidean, pozteko apustua litzateke hori, balego. Beste kontu bat da arretarena. Kontu handiz ibili behar genuke. Hasteko, gehiegizkoa iruditzen zaigulako. Aurreko hamarkadetan emakumeen literaturari eskaintzen zitzaion arretarekin konparatuz oraingoa handiagoa da, baina hori baino ez. Ohitura falta, aurreritziak eta aurrejuzkuak dira emakume idazleekiko arreta gehiegizkoa dela esatera garamatzatenak. Gainera, ze arreta mota da: arreta kritiko-literarioa ala mediatikoa, anekdotikoa?

Orgasmus liburuaren idazleei literaturaz aritu beharrean beraien buruaz hitz egitea leporatzen die. Baina horixe da egileek oro har, baita gizonezkoek ere, usu egiten dutena: liburuaren nondik norakoez hitz egiten dute, ez dute iruzkin kritikorik egiten. Hori kritikok egiten dugu, kritikok eta irakurleek, ez ahaztu.

Era kritikoan esango dugu guk, beraz: *Orgasmus* liburuak irakurtzeko eta baloratzeko motibo franko ditu: tonu berriak dakartza, gaiak emakumeen ikuspuntuetatik kontatzen dira, erotismoa era ezberdinetan agertzen da, pertsonaiek identifikatzeko aukera ematen dute, lekuak eta anekdotak ugariak dira eta liburua arin irakur daiteke. Estilo ezberdinak aurkituko ditu irakurleak, batzuk besteak baino gustokoagoak, baina antologia bat da eta horixe da, hain zuzen, antologiaren ezaugarri nagusia: hainbat testuren bildumak izaki

irregularrak izaten direla, ezberdin dastatzen direla, gustuen arabera. Irakurle arruntek esango dute: gustatu zait, ondo dago, originala da, arina da, gustura irakurri dut... eta gomendatuko dute. Eta asko gomendatzen badute baliteke "best seller" bilakatzea.

Iraitzen ustez, emakumeen izenez sinatuta agertzeak erotismoa gehitzen dio berez *Orgasmus* hitzak duen morboari, eta hortik kuriositatea piztea eta salmenta harrigarria. Baina zenbat ale saldu dira dagoeneko? Iraitzek ez du esaten. Zein zerrendatan topatu du *Orgasmus*? Guk ere irakurri ditugu salduenen zerrendak, eta ez dugu aurkitu. Benetan da *Orgasmus* "best seller" bat? Ala zenbakiak eta liburuak izan duen harrera puztu egin zaizkio Iraitzi artikuluan? Zirrarez, intuizioz, aurreritiz sumatutako arrakastaz ala egiazko fenomenoaz ari gara?

Demagun *Orgasmus liburua* "best seller" bat dela, hiru hilabeotan lortu duela salmenta harrigarria. Zoriontzeko berria litzateke. Guk ez dugu "best seller"-en kontrako jarrerarik. Guk eskertzen ditugu. Euskal irakurzaletasuna indartzen edo areagotzen duen liburu bati ongietorria eman behar zaio beti, euskal literaturan liburu mota asko, aukera asko baitago, eta irakurleak hautatu baitu. Gutxitan gertatzen da, eta kasu honetan emakume-izenek sortzen duten morboari esker lortu bada, hori hala bada, ba, bazen garaia, euskal literaturan orain arte ez baita halakorik gertatu. Eta liburua ez da artikulua irakurrita uste litekeen bezain eskasa. Liburuak balio literarioak ditu, batzuk objetiboak beste batzuk subjektiboagoak eta irakurleei hainbeste gustatu bazaie zeozergaitik izango da, ezta? Ala irakurleek irakurtzen ez dakitela esaten hasiko gara? Beren gustuei buruzko juzkuak ematen? Irakurtzean literatura-plazera lortu badute, on egin! Horixe baita liburu guztien helburu nagusienetarikoa: gustatzea.